

Espainiako legeriak osasun-laguntza bermatzen du, baita asiloa eskatu dutenei eta, oro har, errefuxiatuei ere. Laguntza hori eskuratzeko aukera lortzen da osasun-etxeetara, espezialitateen zentroetara eta ospitaletara jota, gainerako herritarren baldintza berdinetan. Nazioarteko asiloa eta babesa eskatu duten pertsonak, ikasleak eta turistek GIB birusa tratatzeko botikak behar badituzte, pazienteen elkarteetara jo dezakete (Cesida, gTt-VIH eta ImaginaMás, besteak beste); elkarte horiek laguntasun-lana egiten dute, eta administrazio-prozesuan laguntza eskaintzen diete, GIBa duten pertsona horiek eretrobirusen aurkako tratamendua berehala eskura dezaten bermatzeko helburuz.

Nola jar naiteke harremanetan Alcaláko Unibertsitateko Klinika Juridikoarekin?

Bidali zure kontsulta gure helbide elektronikora
clinicalegal@uah.es

Gogoan izan:

Klinika Juridikoak doan eskaintzen du zerbitzu hori

GIBa duten pertsonen eskubideak baliatzeko aukera ematean espezializatuta dago

Zerbitzu anonimoa eta konfidentziala da

Zure kontsultei erantzuten dietenak Zuzenbideko ikasle eta irakasleak dira

DECADE katedra
Alcaláko Unibertsitatea
catedradecade@uah.es

Alcaláko Unibertsitateko
Klinika Juridikoa

@ clinicalegal@uah.es

f ClinicaLegalUAH

🐦 ClinicaLegalUAH

HONAKO HAUEN LAGUNTZAREKIN:



12 | Alcaláko Unibertsitateko
Klinika Juridikoa

**GIBa eta
immigrazioa**

EU



Nork jaso dezake osasun-laguntza Espainian?

Espainiako Konstituzioaren 43. artikulua osasunaren babeserako eskubidea aitortzen du, eta horren barruan sartzen dira osasun-laguntzako prestazioak. Hainbat araudi nazional eta autonomikok garatu du eskubide hori.

14/1986 Osasunaren Lege Orokorren 1.2 artikulua ezartzen du “osasunaren babeserako eta osasun-arreta jasotzeko eskubidearen titular” direla “espainiar guztiak eta beren bizitokia nazio-lurraldean finkatuta duten atzerritarrak”. Gainera, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoak aitortzen du «atzerritarrek osasun-laguntzarako eskubidea» dutela, “osasunaren arloan indarrean dagoen legerian aurreikusitakoari jarraiki» (12. artikulua). Estatuko Osasun Sistemaren Kohesioa eta Kalitateari buruzko 16/2003 Legea da legeria hori; arau horrek jasotzen du osasunaren babeserako eskubidea Osasun Sistema Nazionalaren bitartez emango zaiela haren titular diren guztiei.

16/2003 Legean xedatutakoaren arabera –7/2018 Errege Lege Dekretuak aldatu ondoren– eskubide horren titularrak dira espainiar nazionalitatea duten guztiak eta haien bizitokia espainiar lurraldean finkatuta duten atzerritarrak (3. artikulua).

Nork erabil dezake Espainian Osasun Sistema Nazionalea?

Osasunaren babeserako eskubidea funts publikoen kontura gauzatzeko, ondorengo lege-eskakizunak bete beharko dituzte titularrek: espainiar nazionalitatea eta ohiko bizitokia Espainian izatea; Espainian osasun-laguntzarako eskubidea aitortuta izatea, baldin eta ez badago laguntza hori ordaintzeko obligazioa duen hirugarren bat; atzerritarra izanik, legezko eta ohiko bizitokia Espainian izatea eta ez izatea osasun-zerbitzuaren nahitaezko estaldura beste bide batetik egiaztatzeko obligazioa.

Ez balira beteko eskakizun orokor horiek, arauak ezartzen du osasun-arreta eskura daitekeela dagokion kontraprestazioa edo hitzarmen berezi baterako harpidetzari dagokion kuota ordainduta. Farmazia-prestazioa, baina, ez da sartzen hitzarmen berezi horien edukian.

Nahiz eta 16/2003 Legeak, berriki aldatu ondoren, Espainian bizi diren pertsona guztiak hartzen dituen osasunaren babeserako eta osasun-arreta jasotzeko eskubidearen titulartzat, oraindik ere badaude pertsona batzuentzako egoera bidegabeak, beren egoera administratiboaren arabera. Horixe gertatzen da, adibidez, Espainiara etortzen diren eta, osasun-laguntza eta farmazia-prestazioa jasotzeko, nahitaezko aseguru bat kontratatu behar duten ikasleen kasuan. Halaber, Espainian turista gisa egoten diren pertsonen ere ezin dute erretrobirusen aurkako tratamendurik eskuratu 90 egun igarotzen diren arte, ez baitaude egoera irregularrean.

Jaso al dezakete Espainian **GIB** biruserako tratamendua etorkin irregularrek?

Bai. Egoera irregularrean dauden etorkinek osasun-laguntzarako eskubidea dute, ez bakarrik gaixotasun larriagatiko edo istripuagatiko larrialdi-kasuetan, haurdunaldirako, erditzerako eta erditze ondorengo arretarako edo 18 urtez azpiko adingabeak direlako, baizik eta, 16/2003 Legearen aldagetarekin –7/2018 Errege Lege Dekretuaren bitartez aldatu zen–, Espainian egoiliar gisa erregistratuta edota baimenduta ez dauden atzerritarrek osasunaren babeserako eta osasun-arreta jasotzeko eskubidea dute, espainiar nazionalitatea duten pertsonen baldintza berdinetan.

Autonomia Erkidego bakoitzak finkatuko du atzerritarrak laguntza-prestazioa jaso ahal izateko egiaztatzen dituen ziurtagiria eskatzeko eta jaulkitzeko prozedura.